

PRAILLEA ETA EPERRAK

Joxepa, eskongaia zalarik, erriko Erretore jaunaren etxean egoan neskame. Praille bizardun sermolaria euen bazkaltzeko. Orrelakorik zanean, Erretore jaunak beti prestatzen eban kopaturen bat, goxo-goxua, praille gizajoa-ri gosea asetzeko.

Ala gertatu zan egun aretan be: eguerdirako eper parea euen ederra.

* * *

Kasualidadea izango da baiña, goiz aretan Oto, Joxeparen senargaia, etorri jaken soldauzkatik eta asmoa euen gabea aparti eder batekin Pototo'ren alkarlean ospatzeko. Orretarako gauza egokiagorik eperrak baiño, zer? Otok andregaiari:

—Joxepa, eper orreik emon bear daustazuz apaltzeko...

—Emon? Zelan?

—Ara, neska.

—Eta zer esango dau Erretore jaunak?

—Zuk ezkutu egizuz eta asmakizunen bat sortuko degu bitartean, zertan gabiltzan konturatu ez daiten.

—Asmakizuna asmatzen ba'dogu, gordeko dodaz eperrok.

* * *

Pozik eldu zan Oto lagunartera. Bi eper, apaltzeko. Eta, nolako eperrak...! Orain katu bat arrapatzea falta zan. Orrela osako eban apartia: erbia eperrakin.

* * *

Otoren laguntzarekin, laguntza aundia ez ba'zan be, Josepek asmatu ebazan asmatzekoak. Esan dagigun aurretik zer oitura eban Erretore jaunak: jaki batetik bestera denbora luzetxo pasatzen ba'zan, kutxillo bi artu eta alkar zorrozten asten zan. Aiztoak alkarrekin ateratzen eban soiñuekin konturatzen zan Joxepe Erretorea zain eukala.

Bazkaldu aurretik, Josepak praillea bere kontura artu eta onelan esan eutson:

—Ara, jauna, gure nagusiak berealdiko kasketaldiak izaten dauz, ilgoran batez be eta ilgoran gagoz. Zur egon, gaur aldakaitza asmau dautsot-eta.

—Zer dinostazu, andratxo?

—Berorrek entzun dauana, jauna.

—Egia da aldrebeskeri ori?

—Bai, bai eta nik ez neuke nai, nere kulpaz, berorreri okerren bat gertatzerik.

—Okerra niri?

—Bai, jauna.

—Eta, zer oker?

—Aldizka belarriak ebagitea gustatzen jako, euskaldunak oso aundiak ukiten dauz-eta.

—Belarriak ebaki? Olakorik! Zelan igarriko dautsat arriskuan ba'nago...?

—Erreza da: goibel jartzen ba'da eta kutxilloak zorrozten asi, anka arin-arin lasterka; bestela berorren belarrien errukia...!

* * *

Batzuri-zopa jan eban asteko. Gaiñerako amorraiñak. Praillea orrenbestekin konprome zan; baiña, Erretorea eperren zain egoan eta; eperrik agertu ez. Egan egin ote dabe, pentsatzen eban berekiko. Joxepa geldi sukaldetan, etorkizunaren zain.

Aspertu zanean, Erretoreak artzen dauz mai-gaiñetik bi kutxillo aundienak eta alkar zorrozten asi zan txorroskilerorik onenak baiño obeto. Prailleari jandako amorraiñek urdailletik gora etorkozan agoraiño. Erretoreari begira-begira geratu jakon, zoratuta bezela; gero, bat-batean jagi eta urten eban korrika bazkal-gelatik.

Erretorea egoan arri ta zur prailleak nundik alde egin eban begira. Sartu da andre Joxepa estu eta larri.

—Zer dau orrek, Joxepa? Erotu egin ete da? Zoramenak emon ete dautso?

—Zoramen ederra dau orrek...

—Zer, ba...?

—Eperrak sukaldetik arrapatuta doa.

—Eperrak arrapatu...!

—Bai, jauna. Biak.

—Eper biak arrapatu ditula? Nik Errioxatik ekarritako eper ederrak...

—Biak, jauna.

—Ez ditu ba berak jango! Ez, orixe!

Kutxilloak esku banatan ditula ekin dautso praillearen ondoren. Erretore-etxearen aurreko zelaixoa pasa eta praillea maldan gora doa mendian, eskuek belarrietan ditula. Gaztea izaki. Bere atzetik Erretor jauna kutxilloak eskuetan. Alperrik ez dau arrapatuko:

—Aizu, lagun, biak ez ba'dira, bat beintzat bai...!

—Ez bat eta ez bi. Bat be ez.

Malkorrean gora zeñek arrapatu gure praillea...! Bide-erdian gelditu da gure Erretore jauna buruari atz egiñaz:

—Au dek praille xelebrea, amorraiñak jan ondoren, eperrak arrapatu... Kontxo, kontxo... Bere sermoietan ez al jok zazpigarren agindua erabilliko! Orixe bakarrik palta genduke...

* * *

Oto, Pototo eta lagunak naikoa barre egin eban aretan Erretore eta praillearen kontura.

ARRINDA'tar ANES